




Marea Urdina aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioaren alde lan egiten duen elkarte da.

21 MAREA URDINA Elkartearekin solasean:

- Aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioaren alde lan egiten du Marea Urdinak.
- Ikusten ez dena askotan existitzen ez dela ematen duelako.
- Aniztasun funtzional hauen inguruan informazioa eman eta etengabeko sentsibilizazio lana egitea ere gure helburu da.
- Denok aukera berdinekin bizitzeko eskubidea dugulako.
- Denok gara ezberdin eta era berean denok berdinak garela lelopean lan egiten dugu.
- Danok gara olatuaren tanta bat, danok gara urdin.
- Gure abestiak dioen bezala: bakarrik joanda bizkor zoaz baina, urrun iristeko lagunak behar...



22 MAREA URDINA

Musika, hitzak eta ahotsak: Marea Urdina Elkarte

Ur jauzi baten moduan zeru kolorez
Itsasoari begira begietan distira

Eskuetan kilimak denok batera
olatu gainean igerian goaz
ametsak eraikiz bihotz zabalik
zure hondartza maitasunez jantzi

Urdina zara, zu olatu zara
Urdinak gara, gu ere olatu gara

ohhhhh...

Eguzkiak azala berotzen dit
kresalaren usain ederrean

Bakarrik joanda bizkor zoaz baina,
urrun iristeko lagunak behar
handi ta txikiak zatozte denak
Marea Urdina denok baikara.

Urdina zara, zu olatu zara
Urdinak gara, gu ere olatu gara

ohhhhh...